

# EUSKAL LITERATURA MUNDUTARRA

Por Juan San Martín (\*)

**M**AIZEGI entzun dugu euskal literaturan ez dagoala ezer baliozkorik, erlijio gaitik aparte. Oso zabaldua dagoan uste orrek ez digu penarik emalen euskal kulturak balere inportik ez dion bategandik datorrenean. Guziok bai dakigu proporzioz erlijio gaia askoz ere geiago landua dugula euskal literaturan (Erlijioso ez geranon lotsarirako eta erlijioso diranen ohorerako, noski. Bakoitzak bere eltzari gatza). Ori, ukatu ezin genezakean egia da. Baiña orrek ez du esan nai literatura mundutarra ere ze dugunik. Eta sarri penatu gera abertzale ta euskeltzale dirala esaten dutenagandik, ta gaiñera beren buruak kulturazaletzak edukirik, gure literaturan ez dagoala ezer merezigarririk esan digutenean. Ori esaten dutenak, bear bada, jakingo dule zerbait kondaira eta politikari buruz, baiña oso gutxi euskal literaturari buruz.

*Egi negargarri au uste baiño askoz zabalduago dago gure errian.*

*Uste oker oiek gezurtatzera datorkigu Aingēru Irigaray euskaltzaiña oraintxu «Príncipe de Viana» aldizkariaren 98-99 zenbakian argitaratu digun Esbozo bio-bibliográfico de Literatura éuscara profana (del siglo XV al XX), 28 orrialdeetan adierazten duan lan mamitsua.*

*Ez da lenbiziko aldiz Irigaray, medikuak era onetako lana eskeintzen diguna. Amaika argibide ta iritzi eman digu gure literatura zaarrari buruz.*

*Orain, literatura ez sainduari buruzko onetan ere, atal ez ezagun edo gūxi ezagun askoren argibideak dakarzki, aburu jakingarriak erantsiz. Bere lanak, adibidez, amabosgarren mendetik ogeigarrenera arte ditugun erlijioz kanporako lanik berezienak bakarrik emalen ditu ezautaraztera. Orregaitik, egilleak,*

(\*) Juan San Martín Ortiz de Zárate nació en Eibar, el 22 de junio de 1922. De formación autodidacta. Desde su mocedad es aficionado al montañismo, practicándolo en todas sus modalidades, habiendo realizado escaladas en Picos de Europa, Gredos, Pirineos y Alpes. Ha sido instructor de la Escuela Nacional de Alta Montaña. También ha practicado la espeleología, participando en las expediciones internacionales a la Sima de la Piedra de San Martín. Y es poseedor de la Medalla del Mérito Deportivo de Montaña (en plata), por la Federación Española de Montañismo. Inició su carrera de escritor con narraciones montaÑeras, allá por el año 1950. Comenzó a escribir en vascuence en 1956. En 1957 fue nombrado correspondiente de la Academia de la Lengua Vasca, y en 1964 pasó a ser miembro de número. En la actualidad es secretario de dicha entidad. En 1964 fue galardonado con el premio de periodismo «Lauaxeta», de «Eskual Idazkaritza» de Bayona. Es autor, en euskera, de las obras: *Mogel, bere bizita ta lanak* (Zarauz, 1959); *Zirikadak* (Zarauz, 1960); *Ezrenkadak* (Zarauz, 1965). Y, en castellano: *Etnografía del valle de Urraul Alto* (San Sebastián, 1966), en colaboración con Luis Pedro Peña. Ha traducido al vascuence: *Zaldun bitxia* (Le cavalier bizarre), teatro, de Michel de Ghelderode (1965) y *Sinerako liburua* (Libre de Sinera), poemas, de Salvador Espriu (1966). Además, preparó y prologó las ediciones de *Patziko lterren* de Trueba-Apaolaza (1962) y *Ipui onak* de Vicenta Moguel (1963). Colabora asiduamente en publicaciones euskéricas. Su bibliografía es abundante.

bukaeran aginzen digu lanaren jarraipidea noizbail agerluko duela. Betor lenbail-len.

XV-garren mendeko Oñaz ta Gunboar eta Agramol ta Beamount arteko guduetan sortutako kobla-zaarrekin ekiten dio, pastoral eta txaribari, ihauteri solas oiñarriztal arturik. Ondorean, zenbait egilleren bizitza ta lanen berri ematen du beren atal autatu batzuek jarriaz. Atal oiek euskeraz eta erderazko itzulpenez ematen ditu. Egille ezagunen arteko jartzen ditu: Bernart Etxepare (*Linguae Vasconum Primitiae*, 1545-ean argitaratuaren egillea), Oihenart (1592-1667), Joanes Etxeberri (1668-1749), Juan Antonio Mogel (1745-1804), Izueta (1767-1845), Agustín Paskual Iturriaga (1778-1851), Ulibarri (1775-1847), dira autore-zaurretatik bereziki artu dituanak. Beste askoren aipamenekin ere baliatzen delarik, bere aburuak jartzeko.

Azkuak eta Barandiaranek bildutako aozko literaturari ere naikoa gozmen ematen dio. Merezi ere, ondo merezi dute. Eta, bukatzeko, Bonifazio Lataxaren Bizkaiko erri teatrua dakar, atal zirikalari batzuen bidez lanaren gatza ta piperra biziki agertuaz.

Gaiñera, bertan jartzen dituan oiek ez dira atalik bortitzenak. Gure literatura noraiño eltzen dan jakiñerazteko, nere ustean, zenbait zati erotiku ere artu bear zituan; adibidez, Etxepare'ren zenbait bertsu aski zituan, neurri bezala. Nenoren esku balitz, «Emazten fabore» poesiaren amabost eta amaseigarren bertsuak sartuko nituan.

Baiña ala ere bada argibiderik aski gure literatura mundutarrak duen nortasuna adierazteko. Aukeratu dituan zatietan, gaurko literatura moldeen indarra nabari da: gauzak zuzenki azaltzeko era, gauzak adierazteko indarra, izkutuko misterio kutsua, guzia biotzauskadaz beterik.

Iragaray'ren lan jakingarriak ez du aspertzen. Era orretako lan asko bear

geniluzke, ta aisa zabaldu liburu ta aldizkarietan erderaren bidez; ia erbeste-koak aintzat arturik bertakoak ere iratzartzen diran. Euskal literaturako lanetatik, merezi duan guzia erderaz adierazi bearrean gaude, katalanak egin izan duten bezala. Euskeran ere badala edo al dala erakutsi, euskalduna arduratu dedin.

Gaiñera, oraingo idazle askoren artean ere bada lengoak ezagutzeko premia. Zenbaitzuen idaz-moldeak ikusirik ezagun da, ikaskizunik aski duen, Sara'ko Joanes Etxeberriren lezio ura ez dakitela: «... izenen deklinazioak, berboen konjugazioak eta mintzatzeko manerak Euskerarenak dira; eta hauk hunela diranaz geroztikan, ezin erran ditekete bertzetarik duela bere etorkia, zeren hauntan baitago hizkuntzaren gora bera guztia».

Ala ere, alegiñak alegin, larri naiz euskaldunari alperrikako deietan ez ote gabiltzan. Gure erria biziki maitatzen duten kultura zale askori bost ajola euskerak, eta erriak ez du kultura egarririk nabaitzen, batez ere gure jalorizko kulturarenik, eta ori gabe etorkizunerako iturriak zearo agortzeko bidetan daude.

Iragaray'ren lana irakurtzen duenak (Merezi du irakurtzea eta egille beraren bidez arkitu lezake lan au. Bere zuzenbidea: Esnaola, 15. Donostia) ezingoda esan euskal literaturan erlijio gaietatik apartekorik ezer ez dagoanik, mundutar literatura aldetik balio dueanik. Ori gaiñera Etxahun (1786-1862) bezalako olerkari bati leku gutxi ematen diolarik. Baiña Irigaray jaunak itz ematen digu bear bada xeetasun geiago agertuko ditugla ondorenago. Beraz, orren esperantzatan gaude.

Literatura mundutarrari buruz, Lafitte, Mitxelena eta Villasante jaunek euskal literaturaren kondairak ere naikoa argi amalen badute, Irigaray'rena, ortaz soillik, interesgarriagoa azaltzen dan nortasunaren begietarako.